

STEILAS sindikatuan harrিতuta eta kezkatua gaude azken mahai negoziatzaile ostean eman diren gertakariengatik, hurrengo lerroetan laburtzen saiatuko garenak.

Maiatzaren 8an bilera izan genuen eta hilaren 13an enpresak egindako lan hitzarmenaren azken zirriborroa emailez jaso genuen. Horrekin batera maiatzaren 22rako sinatzeko prest geunden ala ez adieraztea eskatzen zitzaigun, "arren". Egun batzuk pasatu ostean, erantzun bat emateko epea maiatzaren 27ra arte luzatu zigun; emailez, berriro ere.

STEILASen, dokumentua aztertu ostean, proposamen berriari buruz genituen galderak eta proposamenak gerenteari luzatu genizkion eta lan hitzarmena sinatzeko administrazioaren proposamena ulertu behar genuela esan genion. Erantzuna jasotzean, zalantza batzuk erdizka argitu zizkigun eta beste batzuk airean geratu ziren. Hala ere, lan hitzarmenaren proposamen berria eta mahai negoziatzailearen deialdia jasotzea espero genuen, baina ez da horrela izan. Hauek izan ziren zehazki gerentearen hitzak zirriborro berria eskatu genionean:

"Lan-hitzarmenaren testuaren azken proposamena bidali zitzaizuen, testu hura sinatuko duzuen ala ez erantzuteko zuek. Ekarpenak egitearekin, zuen erantzuna ezezkoa dela ulertzen dugu".

STEILASetik beti edozein negoziazio prozesuetan gardentasuna eskatu dugu. Gerenteak guk idatzi ez duguna interpretatu egin du. Maiatzaren 8an eskatu genuen bezala, hurrengo mahai negoziatzaile batean dokumentu horrekiko gure asmoak zeintzuk diren azpimarratuko dugu eta gure eskaeretan berretsiko gara. Ez dugu negoziazioa amaitutzat emango, langileon eskubideak eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko lanean jarraitu nahi baitugu. Horretarako, mahai negoziatzaileak eskatzen jarraituko dugu behin eta berriro. Horrela egin ezean, eta sindikatuak ez badira beste negoziazio-mahai batera deitzen, Administrazioa eta Gerentea izango dira negoziazioa amaitutzat emango dutenak.

Bestalde, asko dira hemendik ikasturtea bukatu arte landu eta garatu beharreko prozesuak, hala nola, lanpostu zerrendaren negoziazioa, LALaren datak eta nondik norakoak argitzea, datorren ikasturteko planifikazioa, ordezkapen telematikoak egiteko aplikatiboa eta araudiaren adostasuna, kudeaketa langileen arudiak sortzea... Hori guztia gerenteari idatziz jakinarazi genion eta hauek izan ziren bere erantzunak:

"Gauzak horrela, orain aztertu egin behar da zein izango den hurrengo pausua."

"Gainerako gaiak prestatzen jarraitzen dugu. Ahalik eta azkarren izango duzue guztiaren berri."

Beraz, beste behin ere **STEILAS** sindikatuaren eskaera argia da: Mahai Negoziatzailearen deialdi berria eta negoziazio erreala behar dugu, edukiez osatuta, informazioa, negoziazioa eta elkarlana bultzatuko duena.

Guztiontzat lan hitzarmen duin baten alde lanean jarraituko dugu!



steilas

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus